



Gernika-Lumon, 2009ko martxoaren 24ean

Kaixo lagunok:

2009ko urtea oso berezia da **Lurgozo Kontsumo Ekologikoaren Aldeko Urdaibaiko Elkartea** osatzen dugunontzat, proiektua martxan jarri zela urte bete igaro delako.

Gure bigarren urtea bete izan da, baina betiere ingurumen orekatsu, produktu ekologiko eta bidezko merkataritzako produktuen aldeko egitasmoak bultzatu nahian igarotakoa izan da.

Asmo horrekin 2009ko apirilaren lehen astetik aurrera lokal berria estreinatu behar dugu. Orain artekoarekin alderatuta aukera hobeagoak eskaintzen diguna, handiagoa eta martitzenetik barikura 17:30etatik 20:00etara irekita egotea baimenduko diguna.

Baina urtebete hau gure erara ospatu nahi dugu, gaiarekin lotutako hitzaldiak eta filmen proiektioekin. Gutun honekin batera apirilean antolatu dugun ekintzen berri ematen duen triptikoa jaso duzu. Denoi zabalik, bazkide izan zein ez, irekita dauden ekintzetan partehartzera gonbidatuta zaude.

Bestaldetik, internet bazkideon arteko hartuemanetarako oso tresna egokia denez gogoratu nahi dizuegu oso garrantzitsua dela bakoitzaren helbide elektronikoa ondo dagoen begiztatzea, mezu asko bueltan baitatuz. Horregatik, Lurgozotik pasatzen zaretenean bertako arduradunari bazkide-zenbakia eta helbide elektronikoa zuzena emango bazeniokete eskertuko genizueke.

Besterik gabe,

Lurgozo Kontsumo Ekologikoaren Aldeko Urdaibaiko Elkarteko Komunikazio batzordea